



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

627. zkia.
XV. urtea
2007ko irailaren 21a

MunLet: Herr Professor eta Lady Fingers

Mendaroko zaraten ospitaleko doktoreak

HIZKUNTZ SOLUZIOAK

ILSn Hizkuntza Ikastaroak

Ingelesa, Frantsesa, Alemana, Italiara, Txinera

- Enpresetan taldeak (helburu, ordutegi arabera neurria eginak)
- Modulo Komertzial eta Teknikoak (Ingelesa, Frantsesa, Alemana)
- "One to One" banakako eskolak.
- ILS-en ikastaro irekiak, mailaka (Ulriik Ekainera)
- Alzerrian egonaldiak

Hizkuntza guztietan itzulpenak

Makina Herramientan adituak
Esperientzia zabala duen lan taldea

- Eskuliburuak
- Katalogoak
- Web orriak
- Testu Komertzialak
- ITZULPEN JURATUAK



**INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES**

www.ils.es
Azkue Auzoa, 1-P.K. 37
E-maila: ils@ils.es
Tel.943 744 040 Faxa: 943 741 654



euskara tu secreto

**"guk AEK euskaltegira jo dugu
behar duguna lortzeko"**

Matrikula erdia eta beka sistema Udalarri esker

25 URTEKO ESKARMENTUA

**MATRIKULA
EPEA
HILAREN
26A ARTE**

Nik Hizkuntz eskolakoa

Nik Osakidetzakoa

Nik EGA

Nik Euskallegikoa



Elgoibarko **aeK** Euskaltegia

Plaza Txikia,3 - Tel.: 943 74 13 32 - elgoibar@aeK.org



IBAI PORTU

Aupa, Oihana!

Nork esango zigun BARREneko atarikoan biok elkarrekin mintzatuko ginenik... ta hasteko, gaia aukeratu behar! Ba, begira, uda honetan ikusi dudana eta barrena astindu didan gauza bat kontatuko dizut:

Denboraldiko futbol ligako lehen partidua: Sevilla-Getafe. Sevillakoen jokalaria gazte bat, Antonio Puerta, partidu erdian ondoezak jo eta lurrera erortzen da, konorterik gabe. Nola da posible ordea? Minutu bat lehenago ezker hegaletik korrika zebilen barren! Taldekideak eta taldeko medikuak bere onera ekartzen saiatzen dira eta baita lortu ere. Nahiz eta zutitu, nahiz ta bere oinez zelaia utzi, aldageletan ondoezak betirako joko du, hil arte.

Antonio Puerta hil zela lehenengoz entzun nuenean ezin nuen sinetsi. Futbolari zoragarria, etorkizun oparoa, bere taldearen historiako golik garrantzitsuena sartu zuena, baina mutil apala, hala ere. Oso gogoko nuen. Hain handia izan denez, bere galerak sortu duen tristura, alkar jipoitu nahi izan duten Betis eta Sevillako afizioak besarkatu egin dira.

Gaixotasun kardiobaskular izkutu bat zuen, ia detektaezina, esfortzu handipean bihotza itotzen duena. Orain urte batzuk Diego Gartzia azkoitiar korrikalariari gertatutako bapateko heriotza burura datorkit. Ezin ahalko dira ba kirolean bapateko heriotza horiek aurrez ekidin?

ZOZOAK BELEARI...



OHIANA TARRAGUAL

Buf!

Galdera zaila, Ibai, gure lehen zutaberrako.

Bihotzak ezkututzen dituen tranpa horietako batek eraman du Sevillako jokalaria gaztea.

Nire inguruko bat baino gehiago negarrez ikusi dut. Zergatik? Bai, badakit, gaztea zen, sasoiakoa eta kirolari profesionala. Medikuek proba ugari egin omen zizkioten, baina ez zuten ezer arrarorik aurkitu. Ulertezina bere heriotza.

Zuzenean ikusi ditugu futbol zelaian konortea galdu zitueneko irudiak. Baita negar malkoz betetako alargunaren aurpegia ere. "Telebisatutako heriotza".

Behin eta berriz ikusi ditugu irudi horiek. Hala izan ez balitz, berdin eragingo al liguke?

Heriotzak edozein une eta tokitan egin ahal digu kuku: gatazketan, pateretan, go-seteetan, lan istripuetan, bikote ohiaren eskuetan...

Uda honetan emakume bat hil dute Gandian (ez da udaran hil duten emakume bakarra). Bikotekide ohiak hil du hondartzako pasealekuan, egunez eta denon begien aurrean. Hogeitaz zituen. Ez dut inor negarrez ikusi.

Dagoeneko 69 emakume hil dira aurreko Estatu espainiarrean.

Heriotza guztiak berdinak al dira, Ibai? Ala ez?

«Ezin izango dira bapateko heriotza horiek aurrez ekidin?»

IBAI

«Heriotzak edozein une eta tokitan egin ahal digu kuku»

OHIANA



GUTXIEN PENTSATZEN DENEAN, HIL EGIN BEHAR



Esaera zaharra

Ezin gara lo gelditu!

Kaixo, Elgoibartar. Udako oporretatik bueltan gatoz beriz ere, eta gustatuko litzaiyuke dena ondo doala esatea, baina tamalez, joku zikinak aurrera darrai.

Informazioa ezkutatzea, herri galdeketak bertan behera uztea, kontrako botuak ez ugaltzeko hauteskunderen aurretik obrak gelditzea eta hainbat trikimailuri uda honetan ere beste bat gehitu diote. Oraingotan, AHTren hainbat zati eraiki asmoz Espainiako Gobernuak agindu dituen lurren nahitaezko desjabetzapenen iragarkiak noiz eta uztaillaren 27an eta abuztuaren 8an eta 9an argitaratu dituzte BOEn.

BOEn agertu ondoren alegazioak aurkezteko hamabost egunetako epea egoten denez, agindu horrek kalteturiko biztanle eta udalerrien indefentsioa bilatu dute, udako oporretako geldialdiaren betiko trikimailua erabiliz. Beraz, behin gehiagoz imajina dezakezue beraien planifikazioaren arrazoia.

Halere, AHTren aurkako mugimendua ez da lotan egon, eta alegazio kanpaina burutu zen egun horietan. Joku zi-

kina behin gehiagoz beraien ezintasunaren eta interes pribatuen adierazle dira. Kalera atera eta salatu ezazu, zure etorkizunaren eta zure diruaren kontura aberastu ez daitezten. Aski da! Dena suntsitu eta dirua ezin dela jan konturatzen direnean alperrikakoa izango da ezer egiten hastea!

AHTREN AURKAKO MUGIMENDUA

Errespetu apur bat

Joan zen zapatuan Eroski supermerkatuaren aurrean gertatu zitzaidan egoera bati buruz protesta egin nahi dut.

Emaztea erosketak egiten zegoen eta bere bila joan nintzen. Kotxe barruan nengoela, udaltzain bat etorri zen ziztu bizian eta autoa kendu behar nuela esan zidan. Ez nuela kotxerik mugituko esan nion, emaztea supermerkatuko kutxan zegoela eta berehala alde egingo nuela. Orduan udaltzaina isunak jartzeko koademoaren bila joan zen bere autora. "Nahi duzuna

egin", esan nion, "nik ez dut autoa mugituko". Udaltzaina nire autoan jarri zen koademoarekin eta NAN zenbakia eskatu zidan. Arazorik gabe eman nion. Berak behin eta beriz errepikatzen zuen burla egiten ari nintzela, baina nik ez nion burlarik egin. Autotik ateratzea nahi nuen emazteari erosketekin laguntzeko, baina udaltzainak ez zidan utzi; kotxetik atera ezker, kartzelara eramango ninduela esan zidan eta autoa garabiak eramango zuela gaineratu zuen. Kotxe barruan gertatzen derigortu ninduen.

Badakit nire autoa bigarren ilaran zegoela, ez dut esan nahi erruduna ez nintzenik, baina udaltzaina beste modu batean portatu zitekeen. Bost minutuko kontua zen, besterik ez. Beste hitz batzuekin hobeto konpon zitekeen egoera.

Nik errespetuz jokatu nuen eta udaltzainari ere errespetu apur bat eskatzen diot; nagusiak errespetuz tratatu behar dira.

ISIDORO RICO



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



ESKERTZA

2007ko abuztuaren 10an hil zen **Jesus Leniz Osaren** eta 2006ko irailaren 22an hil zen **Idoia Leniz Azkarateren** oroimenez meza izango da larunbatean, hilak 22, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: baren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Eider Iriando **MAKETATZAILA** Jaione Unanue, Zaloa Arnaiz **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulaiza, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



TXALOK

• **Txalo bero-bero bat Lagun Artea Herri Kirol taldeari:** "Txalo zaparrada handi bat eman nahi diegu Lagun Artea Herri Kirol taldeko kide guztiei, uda honetan eskaini dituzten ekitaldiak ikusgarriak izan direlako. Saio bikainak egin dituzte eta ederki gozatu dugu. Jarraitu horrela, bide onetik zoazte-eta! Animo mutilak!"



• **Eskerrik asko Urasandi auzoko espaloian piboteak jartzeagatik:** "Bazen garaia! Urasandi auzoan autoak aparkatzeko arazo handia dago, eta jende asko, espaloai gainean lagatzen du autoa. Horrek oztopo latzak sortzen ditu, izan ere, bidea estutu egiten da eta ezin izaten dira bi auto elkar gurutzatu. Pibote hauei esker, ezin izango da aurrerantzean espaloai gainean aparkatu eta autoek ez dute trabarik egingo."



KEXAK

• **Isuna gaztekeraz jarri didate:** "Euskaldunak bigarren mailako bizilagunak al gara Elgoibarren? Isunak besteek bezalaxe ordaintzen ditugu, baina ez dugu tratu bera jasotzen. Duela zenbait hilabete gauza bera gertatu zitzaidan eta kexa jarri nuen udaletxean, baina oraindik ez dut erantzunik jaso. Isunak gaztekeraz jartzea lotsagarria da".

ELGOIBARKO UDALTZAINGOA POLICIA MUNICIPAL DE ELGOIBAR				
Nº BOLETIN ZKIA	SALAKETA EGUNA ETA ORDUA / FECHA Y HORA DENUNCIA			
Nº 00	Eguna / Día	Hila / Mes	Urtea / Año	Ordua / Hora
		09	2007	
IBILGAILUA / VEHICULO		Mota / Clase		
[Redacted]		T		
Marka / Marca		Edukia / Modelo		Kolorea / Color
OPEL		[Redacted]		[Redacted]
ARAU-HAUSTEAREN TOKIA / LUGAR DE LA INFRACCION				
PASA DITA AGURE				
ARAU-HAUSTEA / INFRACCION				
SOPRESENDE EL TIEMPO UNICO DE ESTACIONAMIENTO ANZA AZUL				
URRATU DEN AGINDUA / PRECEPTO INFRINGIDO				

Atal honetarako kexak, txalok edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNOREN *Luma*

Diego Herrera

Gu konbentzitzea kostatuta zaitzaion arren, Diego Herrerak, hiru ordu ederretan erakutsi zigun "La Serena" hiria, Chilen, bere taxian. Aitona zahar berritsu bat, Pinochet-en ahotsa imitatuz bere herriaren tristuraren gainetik txistea egiten zituena. Zahartutako karpeta batetik harro mila oroigarri atera zizkigun bidean zehar: jendeak berari idatzitako postalak, egunkarian agertutako duela 40 urteko notizia, ez dakit zein elkartetako lehendakari izendatu zutenekoa,... eta haien artean argazki bat. Begietan dizdira berezia zuela erakutsi zidan. Zuri-beltzean, hogeita hamapiku urte zituenekoa, bere emaztearekin helduta dantzan. "Es bonita, verdad?", galdetu zidan eta tristuraz bere maitia oso gaixo zeukala kontatu zidan "ya se me quedó en 40 kilos, no más".

"La Serena" ez da bereziki polita, baina Diegok munduko toki politena erakutsiko balizu bezala erakusten dizu. Hiru orduak igaro zirenean "se arrepintieron de haser el tour conmigo?" Sekula ez, Diego, sekula ez. Malkoak aguantatuz hunkitu nauen aitona honi bi muxu eta "hasta la vista, Diego". Irrikitzen zaude eta zoaz zure emaztea zaintzera. Ojala "La Serena" bisitatzen duen guztiak zurekin topo egiten badu. Eta zure emazteaz hitzegitean zure begiek esan zidaten guztia norbaiten begiek nigatik esaten badute noizbait.

Ainara Sedano

[ZORTZIKO TXIKIAN]



JOSE ANGEL ZABALA

MAHASTI
ARDANDEGIKO

• Ardo onak aurea hartu dio mahaikoari?

Lehen jendeak urtekoa nahi zuen. Orain kiantzak gero eta gehiago saltzen dira.

• Ohitura aldatu egin da?

Bai. Batez ere kiantzekin. Tabernetan ere ikusten da.

• Gazteek ala zaharrek estimatzen dute ardoa gehiago?

Zaharrek. Baina gazteek ardo onak eskatzen dituzte.

• Ardoa ondo ezagutzen dugu?

Asko ez. Badago interesa duen jendea eta teknika ezagutzen duena, baina oso gutxi dira.

• Aholkurik ematen dizkiezu bezeroei?

Bai. Zuria itsaski eta arrainarekin edateko dela esaten diet. Gorria asko saltzen da; piper beteekin eta txuletatxoekin ondo dator. Kiantza okela errea jateko primerakoa da. Eta erre-serbak, batez ere, ehizarekin.

• Zein da azokaren osasuna gaur egun?

Jende gutxi dabil, edadetua gehien. Hori lan egunetan. Gero asteburuetan gazteak gehiago etortzen dira.

• Azokak zeri egin behar dio aurre hobeto egoteko?

Erreztasunak ipini behar dira. Aparkatzeko lekua behar da eta trabarik ez: eskailerek ez dute laguntzen jendea umeekin etortzeko. Bestela lekua ona da, Elgoibarko onena.



Interneten ere bagaude!

www.elgoiBARREN.net

 ELGOIBARKO IZARRA
KULTURAREN ELKARTEA

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

«Oporrak»

Gaztetan ez nitzan sekula oporretara juten. Lehenengo aldiz Elgoibartik urten nabanian San Mateoko ferixara jun giñan, eta 30 urte eukiko niitun gitxienez. Gerora, nere lagunak asko ibili dira oporretan, alde batetik bestera, baiña ni ez naiz sekula izan asko ibiltzekua. Ezkondu egin nitzan eta hamen geratzen giñan normalian. Lehen ez zagan kanpora

juteko ohiturarik, edo gaur egunian baiño gitxio behintzat. Egungo gaztiak danak kanpora juten dira, eta ondo egitten dabe, gustatzen bajakue. Oporretan herrixan geratzia zan normalena lehen, edo basarixan. Lan asko egoten zan, eta oporrak aprobetxatzen ziran basarixan lana egitteko. Oin kalia bizi gera gehixenak, eta diferentia da.



[GURE BERBAK]

Morfologia (2): NOREN

Genitiboaren (NOREN kasuaren) singularreko forma -AN da:

Atzo ezagutu gendun [gizonan etxia] harako haura dok.

Genitiboan oinarritzen diran kasu-markak eta postposizioak ere, bistan denez, -AN atzizki hori izango debe oiñari:

- NORENTZAT: *Gizonantzat ekari debe oparixa.*
- NORENGANA: *Gizonangana juan gara.*
- NOREN GAINEAN: *Gizonan gaiñian jardun debe.*
- NOREN ALDEAN: *Gizonan aldian emakumia argixagua dok.*

Etxiak, dendak, taillerak edo tabemak izendatzeko asko erabiltzen da atzizki hau. Deitura edo familia batekin lotuta egoten da normalian:

Gure aitxak, tallartxua ero zaukan da, hamen ez zauan, bueno, bazauan ferreterixia, baiña, Eibarko Unzetanekua ere bazan, oiñ oindiokan zeian dagoz, hor San Antolinen. Arananeke taillarra.

Canalestarrak, oindiok hamen Elgoibarren badago bat ero, hau... Barutianian ezkutau-takua, hori... Ramon Canales eta horren illoba bat ero beste ero, hamen bizi dira.

Eta gero, handikan, ba, ni sartu nitzan, ate batetik erten, eta beste batian sartu. Alkorta-nian.

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA



2007ko irailaren 13an, 86 urte zituela hil zen **Teresa Argintxona Artolazaga**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



KEMENEK ESKOPETAK NEURRIRA EGITEN DITU

ELGOIBARKO ARMAK, MUNDU GUZTIAN EZAGUNAK

Elgoibarrek arma sektoreko enbaxadore bikaina dauka, Juan Cruz Sarriguarte, Kemen eskopeta tailerrekoa. Jakinduria aurreko belaunaldietatik datorkio eta lan prozesuaz gain, eskopetaren mundua ondo ezagutzen du. Armagin honek, tiratzaile eta instruktore ere izanik, bezeroei neurrira egiten dizkie armak. Azken urteetan ospe handia hartu du eta goi mailako tiratzaileek eta mundu osoko eliteko ehiztariak beregana jotzen dute.


Juan Cruz Sarriguarte dugu Kemen eskopeta tailerreko arduraduna. Armagin lanbidea familiaz datorkio. Izan ere, Segundo Sarriguarte birraitonak Eibarren ekin zion aurrekarga pistolak egiteari. Juan Cruzen aitak, beriz, AYA eta Victor Sarasquetan jardun zuen. Gero enpresa jarri zuen martxan, 1958an. Tiro eta ehizarako armak egiten zituen.

“Familiako seme nagusi izanik, hamazazpi urterekin ekin nion lanari, gehienbat aitari laguntzen”, dio Juan Cruzek. Lanbidea urte horietan ikasi zuen. “Sasoi hartatik nostalgia dut, gogoan eta aitarenengandik eta enpresako langile zaharrenengandik ikasten genuen guztia”, aitortu du.

Juan Cruzek beste bi bazkiderekin batera Kemen enpresa sortu zuen 1988an, lehiaketetarako eskopeta ona egiteko asmoz. Edozein merkatutan saltzeko moduko arma egin nahi zuten. Europako goi mailako eskopeten prestazioak hobetzeko moduan zirela pentsatu zuten. Lehen urtean 50 eskopeta egin zituzten. Arrakasta izan zuten eta urtez urte arma kopurua handitu zuten. 2006an 182 ekoiztu zituzten. “Inoiz ez ditugu larregi egin nahi izan, artisau produktua delako”.

Izan ere, kontu ikaragarri egiten dituzte eskopetok. Ehizan edota lehiaketetan ari den elite batentzat baino ez dira. Juan Cruz tiratzaile eta instruktorea ere bada eta tiraketeta zein ehizaldietan izaten da, bezeroek tiro nola egiten duten aztertzen. Azken batean, neurrira egiten dizkiete eskopetok eta tiratzaileen estiloan, jarreran edo begiradan erreparatzen du. “Badira buru txikiak, lepo luzeak, beso motzak...” . Hori guztia ere kontuan hartzen dute.

“Neurrira jartzen badiozu, gehiago hiltzen du”, dio. Era horretan, **Kemen**



«Orain, eskopeta tiratzailearen neurrira egokitzen dugu»

ospea ahoz aho hedatu dela uste du. "Goi mailako ehiztari bati eskopeta ondo jarri eta hark zenbat hitzegiten duen gero!".

Lan-prozesu guztia mimoz eginikoa da eta amaieran igartzen da. "Berrehun mila tiro bota eta arma berdin-berdin dago. Horregatik dugu hamar urteko garantia".

Horrez gain, bezeroen nahiak bete behar dituzte. Grabatu konkretuak eskatzen dizkiete, esate baterako. Kemenen ari den

grabatzaileak benetan lan fina egiten du.

Gaur egun, plano bidez dihardute eta lanak zehatzagoak dira. Gero, arma amaitzerakoan, doitu besterik ez da egin behar. Lehengo eskopeten aldean, orain egiten dituztenak askoz suabeagoak dira tiratzean, kolpe txikiagoa jotzen dute. "Lehen eskopetara egokitu behar zuen tiratzaileak. Orain eskopeta egokitzen dugu tiratzailearen neurriira".

Europako eta munduko hamaika txapelketatan garaile izan dira Kemen eskopetadun tiratzaileak, hainbat modalitate-tan. "Eta kontuan hartu gero zein fabrikazio txikia dugun!".

Kemenek berrikuntza nabarmena ekarri du eskopetagintzan. Titaniozko armak egiten hasi ziren eta emaitzak onak izan dira. Titanioa arina eta gogorra da, atzerapen gutxikoa eta oso orekatua.

ARMAGINTZAREN BIHOTZA

Deba arroan armagintzaren eta burdinen arteko lotura oso sendoa izan da beti. Elgoibarren, Soraluzen, Eibarren eta Ermuan orain dela bostehun urte inguru ekin zioten armagintzari.

XX. mende hasieran, esate baterako, Eibarrek 1.149 armagin zituen, Soraluzek 257 eta Elgoibarrek 103. Arma ugari saldu ziren Lehen Mundu Gerratearen kontura (1914-1919), baina guda amaierak krisi larria ekarri zuen. Aurrerantzean, hainbat armaginek euren makinak beste gauza batzuk egiteko aprobetxatu zituzten: bizikletak, josteko makinak...

Armagin kopurua urritu egin bada ere, sektorea ez da desagertu eskualdean. Bost mendetan armak egiteko sistema ez da ia aldatu, mekanizazioa izan ezik. Gainerakoa eskuz egiten du langile bakoitzak: kanoiginak kainoia egiten segitzen du; kaxaginak kaxagintzan dihardu; baskulaginak berean...



Kemenek eskopetagintzara berrikuntzak ekarri baditu ere, armaginak artisauek erara egiten dute lan.



[PROTAGONISTA]



Markel Bergara

Markel Bergara futbolariak Realarekin jokatu zuen zapatuan. Gaizka Garitanok ezin izan zuen oinean zeukan mina gainditu eta hasierako hamaikakoan jarri zuen Coleman entrenatzaileak Markel Bergara. Liga Txapelketako estreinako partida izan zen elgoibartarrarentzat eta galtzen hasi ziren arren, partida irabaztea lortu zuten, 2-3 emaitzarekin Las Palmasen aurka. Errege Kopako partida batean estreinatu zen Markel Realarekin. Orduan ere, Las Palmas taldearen kontra jokatu zuten, baina emaitza oso desberdina izan zen, izan ere, norgehiagoka galdu eta txapelketatik kanpo gelditu ziren.

[NOTIZIA]

Altzolako Zubia jabetxean bi suite eta 16 logelatako hotela egingo dute

Aspaldi itxi zuten Altzolako Zubia jabetxea. Jabe berriak ditu orain eraikinak eta proiektu berri bati ekingo diote. Bi suite eta 16 logela bikoitzeko hotela egingo dute bertan, kafetegi eta jate-txearekin. Proiektua aurkeztu dute dagoneko Elgoibarko Udalean eta datorren abendurako obretan hasteko asmoa daukate. Gauzak ondo joanez gero, datorren urteko uda amaierarako irekiko dute Altzolako hotel berria.

Zazpi hotel

Auzo txikia da Altzola; 250 lagun inguru bizi dira, baina XX. mende erdialdean garrantzia handiko gunea zen. Bainue-



txeak zeukan harreraren ondorioz, zazpi hotel zeuden bertan. Jende asko etortzen zen bertara, gehienak dirudunak. Oso ezagunak ziren ordu hartan Larrañaga, Boulevard, Altzola, Zelaia, Sebastiana edo Ituarte hotelak.

[ZENBAKIA]

400

Joseba Etxeberriak Liga Txapelketako 400. partida jokatu zuen San Mamesen Zaragozaren kontra. Elgoibartarrak zazpi norgehiagoka jokatu zituen Realarekin. Guztira 448 partida jokatu ditu Etxeberriak talde zuri-gorrian 13 denboralditan: 393 ligan, 36 kopan, 8 Txapelaldun ligan eta 11 UEFAn.

asteko [ARGAZKIA]



CCOO sindikatuak deituta metal alorreko hitzarmenaren aldeko kontzentrazioa izan zen martitzenean, eguerdiko 12:30ean. Debabarrena eskualdeko Minero-metalurgia sektoreko langileak elkartu ziren. Euria ari zuenez, udal-letxeko arkupeetan bildu ziren. Guztira hogeita hamar lagun inguru gerturatu ziren Plaza Handira. Ordu erdiko topaketa egin zuten: negoziazio eta hitzarmenaren aldeko aldarrikapenak oihukatzen zituzten eta Adegi patronalaren kontrako garrasiak ere entzun ziren.

Plaza Handiak bihar hartuko du Txankakua Merkatari Elkartearen azoka



Txankakua Merkatarien Elkartek urteroko azoka antolatu du biharko, irailaren 22rako. Merkatari eta tabernariak elgoibartarregana gerturatuko dute merkataritza, hamaiketarik ordu bietara, Plaza handian.

Txankakuaren VII. azoka honetan Elkarteko zerbitzu eta produktuak erakutsi eta salduko dituzte. Horrez gain, plazan jarriko duten edari eta pintxoaren txosnan piper dastaketa izango da.

Elkarteko dendetan irailaren 20tik 22ra egindako erosketen tiketa aurkezten dutenei opariak emango dizkiete.

Umeentzako parkea ere izango dela iragarri dute antolatzaileek. Ludoteka, gaztelu puzgarri eta txirrista eta guzti. Aurreko urteetan bezala, umeak txu-txu trenarekin Elgoibarko kaleetatik zehar ibili ahal izango dira.

Zozketa eta sariak

Guztira 600 euro banatuko ditu Txankakua saritan, 13:30etan hasiko den zozketan. Bertan sartzeko, azokan bertan edo irailaren 17tik 22ra bitartean elkarteko dendetan erosketak egiteagatik ematen duten txartela gorde behar da.

[MOTZ-MOTZIAN]

Euskara ikastaroak

Euren bizimodu arruntean erabiltzeko euskara ikasi edo aberastu nahi dutenentzat eta tituluren bat behar dutenentzat (Osakidetza, Irakaskuntza, Administrazioa, EGA, Hizkuntza Eskola) euskara ikastaroak antolatu ditu AEK euskaltegiak. Bestalde, etorkin, merkatari, enpresa edota norbanakoentzako eskolak ere emango dituzte. Informazio gehiago 943 741332 telefonoan.

Esperientziaren eskola

2007-2008 ikasturterako Debabarreneko Esperientzia Eskolan izena ematea nahi dutenek urriaren 17ra arte dute aukera. Parte hartzeko 50 urte beteta edukitzea bakarrik eskatzen da. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu telefono honetara: 943-820110 (Itziar Elustondo).

Ermuaranbide kalekoen bazkaria

Ermuaranbide kaleko bizilagunek bazkaria egingo dute bihar, hilak 22. 150 lagun inguru bilduko dira. 12:30ean erretiratu zaharren diapositiba emanaldia izango dute Txarri-dunan, gero luntxa eta 14:30ean bazkaria, Gelatxo orkestrak giro-tuta. Bazkarirako izena emateko epea itxita dago, baina interesatuak diapositiba emanaldira joan daitezke.

1966an eta 1967an jaiotako bazkaria

1966an jaiotako eta 1967an jaiotako jaiotako bazkaria egingo dute Aubixan, urriaren 27an. Interesatuak 20 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako 3035 0009 14 0091116747 zenbakian. Bestalde, 1967an jaiotako heritarrek bazkaria egingo dute azaroaren 10ean Sigma jatetxean. Interesatuak 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutzako kontu korronte honetan, urriaren 30a baino lehen: 3035 0007 25 0071040396.

Mugikortasun Asteak kaleak guztiontzako eskatzen ditu



Debabarrenak Europako Mugikortasun Iraunkorraren astea hartu ditu irailaren 16tik 22ra. "Kaleak guztiontzat" lelopean, bizikletak konpontzeko tailerra edo gidatzeko era efiziente eta ekonomikorako ikastaroak dira, besteak beste, herritarrek mugikortasun iraunkorraren inguruan kontzientziazteko prestatu diren ekintzetako batzuk. Ikastaroa urriaren 17an izango da eta izena Debegegan eman beharko da 943820110 telefonoan. Horrez gain, txartel bakarrari eta "autoan elkarrekin" ekimenari bultzada eman nahi diote aste honen bidez.

Inkesta

Ogia eta esnea bezalako oinarritzko produktuen prezioek gora egingo dute.

Nola eragingo dizu oinarritzko produktuen prezio igoerak?

ANA ETXANIZ
Etxekoandrea
55 urte



“Igarriko dut poltsikoan. Euro-arekin dena garestitu da, erosketak egiterakoan lehen baino gehiago gasatzen da. Oinarritzko produktuak garestitzea ez dago ondo.”

NIEVES IZA
Etxekoandrea
77 urte



“Asko eragingo digu, baina berdin-berdin erosiko ditugu, jan egin behar da-eta! Aspaldian produktu guztiak garestitu dira. Hilabete amaieran igarriko dugu.”

BEATRIZ MUGURUZA
Etxekoandrea
54 urte



“Eguneroko produktuak dira eta familia handiei gehiago eragingo die. Gu bi bizi gara etxean eta ez da hainbestera-ko izango, baina azkenean dirua da.”

NORA LODOSO
Erizain laguntzailea
35 urte



“Etxeko faktura batzuetan igarri dut eta ez dit graziaz egin. Soldata bakarra dagoen etxeetan gehiago igarriko da. Amorrua ematen du prezioak igotzeak.”

[BAI ala EZ?]

Ba al daukazu Zinemaldira joateko ohiturarik?

BAI %12

“Bai. Aurten akaso ezin izango naiz joan, baina gustatzen zait aktore famatuak ikustea. Egun hauetan Donostian egoten den giroa izugarria da.”

EZ %88

“Ez, zinemazalea naiz baina ez naiz inoiz joan Donostiako Zinemaldira. Gustura joango nintzateke, parean aukera on bat suertatuz gero.”

Datorren asterako... Espainiako Gobernuk 210 euro emango dizkie hilean alokairuan bizi diren gazteei.
Eusko Jaurlaritzak ere eman beharko lituzke alokairurako laguntzak?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

Edergintza

Gozatu espazio baketsuaz erabateko ongizatean



Judith Edergintzak gorputzerako eta aurpegirako tratamendu bereziak eskaintzen ditu, gorputz osoari lasaitasun eta bake sentazioa eskaintzeko, bai fisikoki eta baimentaliki.

Estresaren kontrako tratamendua

Presak, urduritasuna eta estresa nagusi diren mundu honetan, nekeak gure osasuna kaltetzen du, modu batean edo bestean. Estresa da zelulak zahartu eta degeneratzearen arrazoi nagusia. Bera da beste gaixotasun askoren eragilea eta sustraia. Estresa gainditzea osasun eta ongizate giro sakona sortzea da; bizitza gozatu eta harmonian bizitzeko ezinbestekoa.

Judith Edergintzak eskaintzen digun estresaren kontrako tratamenduak hidratatu, erlaxatu, orekatu eta berrineralizatzeko hel-

burua dauka. Itsaso Hileko gatzekin gorputz guztia esfoliatzen da. Bezeroa Itsaso Hileko lokatzetan biltzen da 25 minutuz, ondoren dutxatu egiten da eta azkenik erlaxazio masaje bat ematen zaio.

Estresaren kontrako tratamendu honetan Alquimia etxeko kosmetika natural altua erabiltzen da. Produktu guztiak landare, lore-ur edota olioeko lehengai naturalak dira.

Judith Zabala - Judith Edergintza



Judith
EDERGINTZA

Errosario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118

MUNLET

BELTZEZ JANTZITAKO MUSIKA ELEKTRONIKOA

Ina eta Ana bikoteak osatzen du MunLet musika taldea. 2003. urtean sortu zuten MunLet proiektua eta hiru mini CD grabatu ondoren, datorren hilean kaleratuko dute euren lehenengo diskoa, Bartzelonako Transpop disketxearen esku-tik. "Clinica de ruidos" jarri diote izena lan berriari. Ausartzen al zarete doinu elektronikoen munduan barrena bidaia egitera? Traje beltza jantzi, aurpegia margotu eta errealityetik ihes egiteko aukera paregabea eskainiko dizuegu ondorengo erreportajearen.

Herr Professor eta Lady Fingers, eguneroko bizimoduan Ina eta Ana direnak, MunLet musika taldean Herr Professor eta Lady Fingers ditugu. Euren identitatea ezkutatzeko eszenatokiak, baina handik jaisten direnean herri-tar arruntak dira, langileak eta gainontze-ko mendaroarren kezka berberak dituzte. Tailerreko langilea bata, supermerkatuko kutxazaina bestea, musika erabiltzen dute errealitye honetatik ihes egiteko: "Beste batzuk mendira joaten diren moduan, guk musika egiten dugu eguneroko bizitzak sortzen duen estresa gainditzeko".

Musika elektronikoa eta rocka uztartzen dituzte. Herr Professor musika sortzaileria da, programatzaileria. Gitarra, sampler eta teklatuarekin sortzen ditu abestiak. Lady Fingers abeslaria da eta berak egiten ditu letrak. Honekin batera, teklatu analogikoa eta Theremin-a jotzen ditu. "Clinica de ruidos" diskoa grabatzea amaitu berri dute eta, dagoeneko, abesti berriak dituzte eskuartean.

MUNLET, ESANAHIRIK GABEKO IZENA

MunLet proiektua sortu aurretik, Uler 600 taldeko partaideak ziren. Hura desegin zenean bikote moduan hasi ziren musika egiten. MunLet jarri zioten izena taldeari. Zergatik? "Hondartzan geundela, taldearentzako izenak pentsatzen hasi ginen, eta MunLet jarri genion. Ez dauka esanahirik, baina hitza bera gustatu zitzaigun. Gure musikarekin hitz horri esanahia ematen saiatzen gara". Musika estudio txiki bat daukate etxean, eta hobby modura ekin

zioten proiektu berriari. 2004an miniCD bat atera zuten eta, nolabait, musika elektronikoa munduan baneratu zen. Bilboko musikari baten eskura iritsi zen lan hura eta handik kontzertuak ematen hasi ziren.

Hiriburuetan ematen dituzte kontzertuak batez ere. Esan digutenez, musika elektronikoa herri txikietan ez dauka jarraitailerik, eta Euskal Herrian, oro har, gutxi dira musika estilo hau entzuten dutenak: "Bartzelona beste mundu bat da, ikaragarria. Musika elektronikoa gehiago onartzen dute, estilo berrien bila dabiltzen jende asko dago". Herr Professor-ek ma-

lenkoniaz gogoratzen ditu musikan hasi zeneko urteak: "Lehen beste giro bat zegoen musika alorrean. Kontzertuak ematea erraza zen, hemen inguruko herri txikietan astero antolatzen ziren kontzertuak, baina orain oso zaila da. Musikaz bizitzea ezinezkoa da, baina ni musikarik gabe ezin naiz bizi; ez dut ulertzen bizitza musikarik gabe".

"CLINICA DE RUIDOS" DISKOA URRIAN

Hobby moduan hasi zen proiektua fruitua ematen hasi da. Datorren hilean "Clinica de ruidos" izeneko diskoa kalera-



tuko du MunLet taldeak. Hamabi abestik osatzen dute lana, batzuk instrumentalak dira, baina "denak dantzarako abestiak dira, jendea ez da aspertuko", esan digu Herr Professor-ek. Musika esperimentalak egiten dute, musika berritzailea. Letrei dagokienez, denetarik abesten dute, baina inplizituki esaten dituzte gauzak, "entzule

bakoitzak bere zentzia ematen dio, bakoitzak nahi duen moduan uler ditzake gure abestiak".

Patuak batu zituen Herr Professor eta Lady Fingers eta musikari esker batera jarraitzen dute. Pintura, traje beltz eta kape-la horren azpian Ina eta Ana, Mendaroko bi bizilagun, bi gazte, bi musikari: MunLet.



Datozen kontzertuak:

Irailak 29, zapatua

MunLet + Hamburguesa Vegetal
22:00etan, Munich 72 aretoan (SANTURTZI)

Urriak 6, zapatua

MunLet + El Desvan del Macho
22:00etan, La Kapillan (BERMEO)

Urriak 27, zapatua

MunLet + Electric Six
22:00etan, Hell Dorado aretoan (GASTEIZ)

Azaleko eta barruko argazkiak: Imanol Gabilondo



MARIA IZAGIRRE
ELIZARRA

«Hutsik egin gabe, 41 urtez segidan joan naiz Arantzazuko bederatziruenera»



Gazte jendea ez da asko joaten elizara, baina adinekoen artean badira oraindik fededun handiak. Gaur Mari Izagirrerekin berba egin dugu. Arantzazuko bederatzirueneretik etorri berri da eta bertako bizipenak kontatu dizkigu. Aurten 41. aldiz joan da Arantzazura eta bere zortzi seme-alabak mahai baten bueltan elkartzea lortu du. Jaungoikoak indarra ematen dion artean ohitura horri eutsiko diola aitortu digu.

► Noiz eta nola hasi zinen Arantzazuko bederatziruenera joaten?

Duela 41 urte senarra hil zitzaidan Arantzazun. Egunk pasatzera joanak ginen bertara eta bat-batean hil zen. Heriotzarik onena norberarentzat, baina ingurukoentzat gogorra. Bederatzi seme-alabarekin gelditu nintzen, bakarrik, eta Jaungoikoari eskatu nion laguntza. Berrogei urtetan Arantzazuko bederatziruenera joango nintzela zin egin nion, hutsik egin gabe eta berrogeigarrenean gainera, seme-alaba guztiak bilduko ginela. Iaz ezin izan nituen denak batu, baina aurten bazkaria egin dugu denok.

► Zergatik berrogei urte?

Nire senarrak berrogei urtez egin zuen lan Iberdrolan. Erretiroa hartu abuztuan eta urrian hil egin zen. Berak lanean pasatu zituen urte berberak egingo nituela zin egin nuen. Nire promesa bete dut, eta hemendik aurrera, Jaungoikoak indarra ematen didan bitartean, ohitura honi eusteko asmoa daukat.

► Zer egiten duzue bederatziruenera horetan?

Errezatu egiten dugu, batez ere. Abuztuko azken egunean hasten da bederatziruenera, hilaren 31n, eta Arantzazu egunera arte irauten du. Urtero hotel berera joaten gara, oso ondo hartzen gaituzte.

Goizean goiz jaiki eta gosaldu ondoren, pasiaratxo bat egiten dugu eta eguerdiko 12:00etan meza nagusira joaten gara. Iluntzean errosarioa eta meza entzuten ditugu berriro ere.

«Egunero joaten
naiz mezarara
eta batzutan
bi aldiz»

► Jende asko biltzen al zarete?

Bai. Leku zoragarria da Arantzazu, lasaia eta benetan ederra. Bertaratzen garen gehienak nagusiak gara, baina aurtengoan sekula baino gazte gehiago izan da. Median ibiltzea gustatzen zaie eta meza entzuteaz gain, Urbia aldera joaten dira. Ni ere baserikoa naiz, mendikoa, eta Arantzazun oso gustura egoten naiz.

► Zenbat aldiz joaten zara mezarara astean?

Egunero joaten naiz. Gure etxean denak oso goiz jaikitzen dira lanera joateko.

Ni eurekin batera esnatzen naiz eta 9:00etako mezarara joaten naiz Madalara. Asteburuetan Santa Klarako elizara joaten naiz. Honetaz aparte, hiletetara ere joaten naiz. Mezarara joaten ez naizen egunetan sekulako falta sentitzen dut. Batzutan baserriera joaten naiz egunak pasatzera eta han irratiz entzuten dut meza.

► Sinismen handiko emakumea zara...

Txikitatik erakutsi didatena da. Gaur egun dena aldatuta dago, gure etxean gazteak ez dira mezarara joaten, beste gauza batzutan sinisten dute, baina Elizan ez. Nik ez diut derrigortuko, elizara joan beharrik ez dago pertsona ona izateko. Dena dela, kalterik ez du egiten mezarara joateak. Hogei minutuko kontua da, ez da batera kostatzen. Hori norberari atera behar zaio. Hala ere, garrantzitsuena pertsonen arteko konfiantza da, hori da oinarrikoena.

► Hil eta gero?

Hil eta gero beste bizitza bat dago. Hori sinistuta bizi naiz ni behintzat, horrek ematen dit aurrera egiteko indarra. Bestela, nola atera diut aurrera nire seme-alaba guztiak? Hor goitik norbaitek lagundu dit, se-guru nago. Gure inguruan hil direnekin elkartuko gara noizbait. Haiek joan dira eta guk aurrera egin behar dugu, ez dago beste erremediorik.

INTERNETEKO BILATZAILEAK: GOOGLE-I ZUKU GUZTIAK ATERATZEKO FORMULAK

Web orriak klasifikatzeko xedez, ziber espazioa arakutzen duten makinak dira bilatzaileak. Zeregin horretan Google-ek ez du lehiakiderik, Espainian batik bat, bera baita erabiliena. Baina Googleri ahalik eta zuku gehienak ateratzea bideratzen duten estrategia ugarietako batzuk ezagutzea merezi du.

Zuzentasun ortografikoa eta zehaztasuna

Bilaketa baten arrakasta, bilatu nahi duen huraxe aurkitzeko bilatzaileak duen trebeziak baino areago, erabiltzaileak termino edo kontzeptu hori ondo zehazteak determinatzen du. Bestela esateko, "okerreko galdera" egiten bazaio, nekez erantzungo digu egokiro ez Google-ek, ez beste zeinahi bilatzailek. Topatu nahi duguna bilatu eta aurkitzeko lehen urratsa, beraz, bilaketa ahalik eta zehazkien mugatzea da.

Dokumentu jakin bat bilatu nahi badugu, bilaketa aurreratueta dokumentuaren formatu mota, hizkuntza edo Interneten sartu zen eguna defini dezakegu, adibidez. Era berean, bilaturiko hitzak orriaren helbidean, orriaren izenburuan edo edukian ager daitezkeen ere eska daiteke.

Bilatzailea baino gehiago

Hozkailuan ezer gutxi dagoenean eta afaltzeko sormenezko zerbait prestatu nahi denean, adibidez, Googlecooking ("Google estiloko sukaldaritza" edo antzeko zer-

bait) gunera jo dezakegu. Leihoan, etxean dauzkagun osagaiak idatziko eta aldamentean "errezeta" hitza jarriko dugu, ea zer eskaintzen digun. Bitxia badirudi ere, behin baino gehiagotan funtzionatu izan du.





INFORMATIKA

DENDA
Lerun Industriaidea, 6

ZERBITZU TEKNIKOA
Jausoro Plaza, 3

ELGOIBAR

Tel.: 943 74 02 40
E-posta: info@elgoriet.es



Upaiz Zaharra 6
943 741 846
www.oninformatika.com
on@oninformatika.com



Softlan
analisis & programazioa

Antonio Arrilaga, 1
Tel.: 943 74 81 05
info@softlan.biz

www.softlan.biz



ZAZPI
INFORMATIKA

zazpi@telefonica.net

Pedro Muguruza, 8 behea
Tel./Faxa: 943 74 37 87

Afrikako argazki erakusketa datorren ostiraletik ikusgai

"Bidaia Erdi Arora" izanburua darman argazki bilduma erakutsiko dute irailaren 28tik urriaren 14ra bitartean Kultur Etxean. Jose Antonio Soldevillaren irudietan Bende komunitatearen eguneroko bizitza ikus daiteke. Ganha iparraldean dagoen komunitate hori oraindik argindarrik gabe bizi da, lan guztiak antzina bezala egiten dituzte gaur egun ere, aldaketarik gabe ia. Kultur Etxeko erakusgela 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik lanegunetan eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara.

Uxue Alberdi Gipuzkoako Bertsolari Txapelketara

Uxue Alberdi elgoibartarrak lehen aldiz parte hartuko du Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan. Bera izango da elgoibartar bakarra parte hartuko duten 79 bertsolarien artean. Irailaren 22an hasiko da sailkapen faseko lehenengo saioa Orion. Uxue Alberdi Hemaniko Biteri Kultur Etxean egingo den saioan estreinatuko da, irailaren 23an (17:00etan). Unai Agirre, Gorka Etxeberria, Amaitz Lasarte, Manex Mujika eta Joxe Luis Urdangarin izango ditu aurrez aurre. Bestalde, txapelketa jarraitzeko www.gpuntua.com webgunea Uxueren anaiak, Antton Alberdik, egin du.

Bandak Balleren omenezko kontzertua eskainiko du

Udalaren Musika Bandak omenaldia egin nahi dio hil berri den zuzendari ohia, Jose Zubiaurre Leiaristi "Balle-ri". Domekan Herriko Antzokian 12:30etan hasiko den kontzertuan minutu bateko isilunea egingo da eta Balleren biografia- inguruko berba batzuk esango dituzte. Kontzertua Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean egingo da eta Soutullo eta Verten "El último romantico" pasodoblearekin hasiko da. Gero Bizeten "Carmen" operaren fantasia izango da entzungai. Bandak Snijdersen "Tango for a toreador" eta Meyren "James Bond 007" joko ditu. Azkenik, Kolditzen "Bella Italia" doinuarekin amaituko da kontzertua.

DANTZA

Haritz Dantzari Taldea Kataluniara berriz itzuliko da beste ikuskizun bat ematera

Asteburu honetan Bartzelonan izango da Haritz Dantzari Taldea, Eibarko Kezkarekin batera, ikuskizuna eskaintzeko. Hango Euskal Etxeak gonbidatuta, zapatu eta domeka honetan saioa eskainiko dute.

Dantzari elgoibartarrek azken asteetan Katalunia bisitatzen duten bigarren aldiz da. Izan ere, uztailaren 27tik 30era, Mostra de Folklore Penedes jaialdian parte hartu zuten, beste zazpi autonomia erkidegotako dantzarekin batera.

Ikuskizunekin gozatu nahi dutenek, dena den, ez dute Bartzelonaraino zertan joan, Haritz hurrengo asteburuan Elgoibarren bertan izango dugulako. Aiasia-San Migel auzoan arituko da dantzan, gaueko 10:30etatik aurrera, Kezkarekin batera.

Urriaren 28an bi taldeak Mallabiko frontoian izango dira, hango lanak amaitu direla-eta.



Agenda bete-betea

Udan, gainera, gelditu gabe ibili dira Haritzeko dantzariak. Sallobente, San Roke, San Bartolome eta Arrateko jaietan eta Lasturren ere dantza egin dute. "Bi dantza taldeek nahiko lan daukate opor buelta honetan. Opor motzik edukitzeko astirik ere ez dute izan", adierazi dute.

Kiribilkak munduko ipuinak ekarriko ditu irailaren 21ean



Sebastopoleko Titiriteroek "Munduko ipuin eta kondairak" ikuskizuna eskainiko dute datorren ostiraletan, 17:30etan Herriko Antzokian, Kiribilka egitasmoaren barruan. Titiriteroek hainbat kulturatako ipuin eta kondairak hurbilduko dituzte, beti ere umeei egokituta. "Iliada", "Odisea", "Mila eta bat gauak", "Done Jakue bideko kondairak", "Amaia edo VIII. mendeko euskaldunak" eta gaur egungo ipuinekin gozatzeko aukera izango dute haurrek. Aktoreak *Commedia dell'Arte*-ren teknikez baliatuko dira istoriak kontatzeko.

Kultur emanaldi horrekin eta gaur arratsaldean Plaza Handian Kiribilkak emango duen saioarekin, egitasmoa berriz jari da martxan, udako etenaren ostean, "Aspaldiko jolasak, gaurko umeentzat" lelopean. Irailaren 28an eta urriaren 5ean ere Kiribilka barraskiloaren saio bana izango da.

AIRE LIBREKO IGERILEKUAK

Erdira jaitsi dira denboraldi honetan Mintxetako erabiltzaileak

Bainu denboraldia ez da ona izan aurtengo udan. 94 egunez egon dira zabalik Mintxetako igerilekuak eta horietatik hamalau bakarrik izan dira eguzkitsuak. Honen ondorioz, erdira jaitsi dira erabiltzaileak. Iaz 30.000 erabiltzaile zenbatu baziren, aurten 15.485 izan dira Mintxetako igerilekuetara igo direnak.

Uztailaren 17a jendetsuena

Uztailak izan ditu erabiltzaile gehien (9.015) eta egunik jendetsuena ere hil berean izan zen: uztailaren 17an 1.065 lagun joan ziren igerilekuetara. Abuztua hil



oso txarra izan da, euri asko egin du eta hilabete osoan 2.387 lagun zenbatu zituzten. Ekainean, berriz, 3.575 eta irailean 508.

Rokodromoan berrikuntzak

Kirol Patronatuak berrikuntzak egin ditu Kiroldegiko rokodromoan. Josu Merino eskalatzaila arduratu da: boulde-rrako panel baten aldaketa, presa gehiago jartzea, rokodromoko presen garbiketa, panelen segurtasun neurriak hobetzea eta 5. maila eta 8A maila bitarteko "bideak" prestatzea. Kiroldegiko bazkideek rokodromoa doan dute.

San Migelera korrika igoera

San Migeleko jaietarako Aiaziarra korrika igoera antolatu dute. Plaza Handia eta Murkaikupe frontoiaren artean dauden bost kilometroetan, 300 metroko desnibela gainditu beharko da. Irteera eguerdiko 12:30ean izango da Plaza Handian eta heritar guztiak daude parte hartzerantz gonbidatuta.

Adur Juaristi Ehiza Xeheko junior kategorian txapelidun

Zanbranan jokatu da Debarre-nerko Ehiza Xeheko txapelketa. Hamazazpi partehartzaile izan ziren eta junior mailan La Union Elkarteko Adur Juaristi izan zen onena. Carlos Conde 3. geratu zen senior mailan eta Francisco Iriondo bigarren beteroan.



Gorka Garatek Arraterekin debutatu du Asobal Ligan

Gorka Garatek, Arrate eskubaloitaldearekin egin zuen debuta Asobal Ligan, eta gainera, gol bat sartu zion Portland San Antonio taldeko Svensson atezainari. Ez zen nahikoa izan, ordea, eibartarrek 29-22 galdu baitzuten. Unai Arrieta eta Ander Goikoetxearen ondoren Asobal Ligan debutatzen duen hirugarren elgoibartarra da Garate.



Berehala lanean hasteko behar ditu:

- ↳ Diseinuan esperientzia daukan delineaatzailea.
- ↳ PLC eta programazio ezagutzak dituen elektronikoa.
- ↳ Alorrean esperientzia daukan produkzio teknikaria.
- ↳ Erreminta Makina alorrean esperientzia daukan muntatzailea.

Kontakturako datuak:
DOIMAK S.A.
 Sanlorentzo auzoa 4, Elgoibar
 943 74 06 47
 webmaster@doimak.es



DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaliturak
 Zatiuen kokaketa
 Lakadak: egur, aluminio, P.V.C.
 Pintura orokorra



San Roke, 7 behean
 Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 28 modulos
 Tel. 943 740 570



Bulegatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
 Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA

PABLO TURRILLAS HAUNDIKO ENTRENATZAILEA

«Irabazteko zailtasunak izango ditugu, baina guri irabaztea ere kostako zaie»



Pablo Turrillas debarak hartu du aurten Haundi taldea entrenatzeko ardura. Azken hiru denboraldiak Gemikan eman ditu eta etxera gerturatzeko gogoa zeukala aitortu digu. Zortzi urtez Elgoibarko jokalaria izan zen eta oso ondo ezagutzen du taldea. Etxean bezala sentitzen da.

▶ **Zer moduz hasi duzue denboraldia?**

Emaitzei begiratzen badiegu, ez gara oso ondo hasi. Baina badakigu gure liga zein den, badakigu hor behean ibiliko garela. Mailari eustea da gure helburua eta ez da erraza izango. Hankak lurrean dauzkagu, badakigu gure muga zein den. Gogor borrokatu beharko dugu.

▶ **Gemikatik Elgoibarrera. Aldaketa garrantzitsua, ezta?**

Azken hiru urteak Gemikan egin ditut. Aurrez Durangoko Kulturean eta Ondaruko Aurreran ere ibili nintzen entrenatzaile. Bizkaiko futbolak ez dauka gipuzkoarrarekin zerikusirik. Bizkaiko taldeek aurrekontu askoz handiagoa daukate. Gipuzkoako taldeentzat gero eta zailagoa da 3. mailan mantentzea. Laster zaituko da sailakpena eta bi liga ikusiko ditugu: goiko aldean bizkaitarrak eta behean gipuzkoarrak: Zarautz, Lagun Onak, Elgoibar... horiekin borrokatuko gara.

▶ **Zein izango da talde handiei aurre egiteko sekretua?**

Aldagela. Giro bikaina daukagu, denok bat eginda gaude eta hori da gure indargunea. Jokalari guztiak ezagutzen nituen etorri aurretik eta etxean bezala hartu naute. Kirol arloan zailtasun handiak izango ditugu partidak irabazteko, baina guri irabaztea ere kostako zaie.

▶ **Fitxaje berri asko egin dituzue. Nola taldea osatu duzue?**

Gazte eta beterranoen arteko nahas-

keta daukagu. 3. mailako futbola oso kompetitiboa da eta detaile txikiek nor-gehiagokak erabakitzen dituzte. Aurten ahal duguna fitxatu dugu. Beste taldeetan askoz gehiago ordaintzen zaie jokalariei eta bertara joaten dira. Martinez eta Arruti jokalaririk garrantzitsuak ziren talderako eta biak joan zaizkigu. Baina gustura nago taldearekin, jokalariek oso ondo dabilta

▶ **Nola hartu zaituzte taldean?**

Primeran. Oso gustura nengoen Gemikan, baina hura beste mundu bat da, presio handia geneukan, beti goian egotea eskatzen zidaten. Etxera gerturatzeko gogoa neukan eta Elgoibarko eskaintzari baiezkoa eman nion. Oso gustura nago.

▶ **Elgoibarko jokalaria izan zinen. Aldaketarik somatu al duzue?**

Ez dauka zerikusirik, beste talde bat dela dirudi. Realari gertatu zitzaion bezala, Lerunetik Mintxetarako aldaketak ez dio onik egin Elgoibari. Lerunera jende mordoak joaten zen taldea animatzera, Mintxeta aldiz, hotza da, zaletu gutxi etortzen da. Heritarrei eskatu nahi diet momentu gogorretan jokalariei animuak emateko, beharko dugu-eta!

▶ **Jokalari ala entrenatzaile moduan sofitzen da gehiago?**

Entrenatzaile moduan, dudarik gabe. Lagun batek esaten zidan bankilloa aulki elektrikoa dela. Ni badaezpa sekula ez naiz jartzen. Ardura handiko postua da.

«Hirugarren mailari eustea da gure helburua, baina ez da erraza izango»

2007-2008 DENBORALDIKO HAUNDIREN AURKEZPENA

Entrenatzailea eta bederatzi jokalaria berri fitxatu ditu Haundik

Aurpegi berri asko aurkitu ditugu Elgoibarko Haundi taldean. Pablo Turrillas entrenatzaile debarrarekin batera, jokalaria berriak fitxatu ditu klubak aurtengo denboraldirako. Kanpotik etorri diren jokalariez aparte, Elgoibarko Erregional taldeetik jokalariaiako igo dituzte lehenengo taldera.

Baja garrantzitsuak

Martinez eta Arruti Amorebieta talde-
ra joan zaizkigu aurten. Baja garrantzitsuak izan dira biak Haundirentzat. Dena dela, euren lekua beteko duten jokalaria gazteak fitxatu ditu Klubak aurtengo denboraldirako. Jokalaria beteranoek eta gazteek osatzen dute Elgoibarko talde nagusia.

Denboraldirako fitxaketak:

Ibon Munitis, Ander Almenara, Pablo Turrillas (entrenatzailea), Unai Mujika "Muxi", Kepa Osoro (Eibar), Iñigo Goenaga (Durango), Raul Ramos (Ermua), Ander Pinilla eta Iker Arrillaga.



Goiko ilaran, ezkerretik hasita: Alex del Rio, Iñigo Goenaga, Pablo Turrillas (entrenatzailea), Oier Iribar, Mikel Tarragual, Jesus Mari Navarrete, David Morais, Unai Mujika, Iosu Olaizola, Julen Aranbarri (prestatzaile fisikoa), Iker Arrillaga, Ander Almenara.
Behean, ezkerretik hasita: Kepa Osoro, Eneko Kortadi, Ibon Mujika, Ander Pinilla, Aitzol Manterola, Raul Ramos, Kerman Azkarraga, Andoni Gabilondo, Iosu Guinea, Elias Fernandez (atezainen entrenatzailea).
Falta da: Iban Konde.

Gipuzkoako Odonto-Estomatologoak Elkarteak

ODONTOLOGOIA  **ODONTOLOGOIA**

Dr. Gerardo Natenzon Garnica

Odontologia Orokorra - PADI
Haurrentzako Hortz-arreta programa
Implantologia
eta

ORAIN ORTODONTZIA

Nagusiak
Haurrak

Txanda aurrez hartu: 943 74 36 35
Osasun publizitate erregistroa: 153/07

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxea salgai erdialdean. 3 logela, sukalde-jangela eta egongela. Komuna eta berogailua. 3. solairua. ☎ **688650060**

▶ Etxea salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, jangela eta komuna. Eguzkitsua. Berritua. ☎ **680707639**

▶ Etxea salgai Erretxindin. 4 logela, sukaldea beritua, eguzkitsua, ganbara, balkoi handia. Igogailua eta fatxada beritua. ☎ **628115677**

▶ Etxea salgai Santa Klaran. 3 logela, egongela, bainugela, sukalde handia, ganbara. Dena kanpora. ☎ **617689348**

ALOKAIRUA

▶ Pisu edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **659093967**

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **671405061/943530243**

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **699637269**

▶ Etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **943531288**

▶ Etxea alokatu edo norbaitekin konpartituko nuke Elgoibarren.

☎ **686907827 (Argitze)**

▶ Logela alokatzen da.

☎ **943741881**

▶ 25 urteko neska batek pisua hartuko luke alokairuan pertsona eus-kaldun batekin. ☎ **658700164**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje marraduna salgai Pista Beltzean.

☎ **943741924/61967779**

[AUTOAK]

▶ Daelin 125cc motorra salgai. Merke. ☎ **696409904**

▶ Renault Megane 1.600 autoa salgai. 42.000km, ia 3 urte. Egoera oso onean. ☎ **606675314**

▶ Karabana salgai Mutrikun.

☎ **629415984**

▶ Audi A4 2.5TDI 150 zaldi. 1998koa. Automatikoa. 140.000km.

☎ **630975501**

[BESTELAKOAK]

▶ Borda egokitu bat erosiko nuke.

☎ **680178636**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. Arratsalde. ☎ **678939382**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **639240038**

• LH eta DBH1. eta 2. mailako klase partikularak emango nituzke urritik aurrera. ☎ **943742855**

• Neska lanerako prest.

☎ **696204053**

• Neska lanerako prest.

☎ **669064252**

• Neska lanerako prest.

☎ **660529146**

• Gizon elgoibartarra eodzein lanetarako prest: baserrian, nagusiak zainduz...

☎ **661225149/943531745**

• Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **626767586**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **652446228**

• Gizona lanetarako prest.

☎ **638338816/943531608**

• Emakumea garbiketarako prest.

☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**

• Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Orduka, esperientziarekin. ☎ **650813847**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ **648603029**

• Gizona elektrizista lanetarako prest. ☎ **606612834**

• Emakumea arratsalde edo gauzez lan egiteko prest.

☎ **686578228**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **638726007**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ **943530132**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest.

☎ **609217705**

• Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **646821678**

• Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketarako prest.

☎ **654073995 (Amelia)**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **696204053/610632782**

• Mutila lanerako prest.

☎ **660441492**

• Neska lanerako prest.

☎ **697431326**

• Emakumea lanerako prest.

☎ **943531608**

• Mutila lanerako prest. Margoketan eta altzariak barnizatzen esperientzia. ☎ **943531608**

• Ostiraletik igandera nagusiak zainduko nituzke eta astean zehar umeak. ☎ **627437279**

• Emakumea garbiketa lanetarako prest. ☎ **649010179**

• 21 urteko neska lanerako prest. Tabernan eta estetizista moduan esperientzia. ☎ **696794107**

ESKAITZA

• Hortz klinikarako harreran lan egiteko neska behar da. Euskaraz jakitea ezinbestekoa.

☎ **647315677 (arratsalde)**

• Sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943121262**

• Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**

• Kamareroa behar da.

☎ **627597222**

• Elgoibarko enpresak proiektista eta delineatzaile bat behar ditu. Curriculum-a bidali 159 postakutxatilara. ☎ **943741662**

• Banatzailea behar da, furgoneta enpresaren kontu.

☎ **627597222**

• Arratsaldetan ume bat zaintzeko pertsona behar da.

☎ **639180184**

• Londresen bizi den familia euskaldunak au-pair bat behar du umeak zaintzeko.

☎ **667710753 (Nora)**

• Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da.

☎ **659399824**

• Bitxiak, barruko erropak eta lurriin produktuak saltzeko jendea behar da. Irabazi onak, ez da esperientziarik behar.

☎ **607824892**

• Tabernarako kamareroa behar da. ☎ **943742595**

ABISUAK

• Eguzkitako betaurreko graduatuak aurkitu ditut.

☎ **943742855**

• Sofa txiki bat, jantziak gordetzeko aparadorea eta mahaitxo bat hartuko nituzke.

☎ **654073995**

• Egunero Azkoiti Elgoibarrera autoz etortzeko prest dagoen norbait behar dut.

☎ **699820820**

• Ihauterietako asteartean, otsailak 20, King-Kong autobus geltoki aurrean izan zen istripuko lekuak behar ditut. Auto batek emakume bat harrapatu zuen.

☎ **670364908/650854917**



Tel: 943 74 10 11

- ☎ IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ☎ ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- ☎ IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

[ZORIONAK]



▶ Zorionak irailaren 19an zure eguna izan zelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Renél** Berandu bada ere gogoratu gara zure urtebetetze egunarekin. Mari Karmen, Tamara eta Aidaren partez.



▶ Zorionak **Hasier** 6 urte egin dituzulako. Muxu handi bat denon partez.



▶ Zorionak **Olatz** atzo bi urte egin zenituelako. Patxo bat familiakoen partez.



▶ Ahaztuta geundelakoan? Zazpi muxu potolo, bereziki, Unaxen partez.



▶ Zorionak **Irati Egaña**, etxeko txikitxuari 5 urte egin dituelako. Ahizpa Alaitz eta etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Markel** zure 1. urtebetetzean. Patxo handi bat familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Aitor** zure 8. urtebetetzean. Ondo pasa eta opari asko jaso!



▶ Zorionak **Paula** astelehenean urte bat egingo duzulako. Muxu handi bat familiakoen eta bereziki, June eta Naroaren partez.



▶ Zorionak Mendaroko **Ander Arregiri** abuztuan 6 urte egin zituelako. Etxekoen eta, bereziki, anai Julenen partez.



▶ Zorionak **Kattalin** zure 9. urtebetetzean. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Nora** hilaren 23an urtebete egingo duzulako. Familiakoen partez.



▶ Zorionak **Diana eta Patricia** Ondo pasa egun! Mari Karmen, Tamara eta Aidaren partez.



▶ Zorionak **Paula eta Maria** zuen egunak izan direlako. Etxeko guztien partez.

PINTXOETAN aukera zabala
P. Muguruza, 7 Tel: 943 74 16 76

Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

URKIDI
AHOLKULARITZA
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 79
Kalamua, 12



[OKINDEGIA]



23 igandea EIZAGIRRE



[FARMAZIAK]

- 21 Zabaleta
- 22 Etxeberria (Errosario)
- 23 Etxeberria (Errosario)
- 24 Ibañez
- 25 Bidasolo
- 26 Etxeberria (Santa Ana)
- 27 Fernandez
- 28 Yudego

GUARDIA 24 ORDUZ

KANPOKO FARMAZIAK IBAÑEZ

Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ

Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

ZABALETA

Kalebaren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

* Beji dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak: 6:55, 7:15, 7:45, 8:15, 8:35, 9:05, 10:45, 13:45, 14:05, 14:45, 15:45, 18:45, 20:45

Larunbatak: 7:05, 7:15, 9:05, 10:45, 11:05, 13:45, 15:05, 18:40, 19:05
Igandek eta jaiegunak: 9:05, 9:45, 13:05, 13:40, 17:05, 18:40, 20:40, 21:05

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:15, 7:00, 8:00, 9:30, 12:30, 13:00, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:00, 19:30, 20:45, 21:00

Larunbatak: 8:00, 12:00, 12:30, 15:00, 16:00, 17:30, 19:30, 20:45, 21:00
Igandek eta jaiegunak: 8:00, 12:00, 12:30, 16:00, 19:30, 20:00, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdira. Azkena 21:55.

Asteburuak eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 902 543 210

[21 BARIXAKUA]

17:30 MUNDUKO IPUIN ETA KONDAIRAK

Sebastopoleko titiriteroen emanaldia, Kiribilka Programaren barnean.

Herriko Antzokian.

[22 ZAPATUA]

11:00 ELGOIBARKO TXANKAKUA MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEAREN VII. FERIA

Plaza Handian

Produktuen erakusketa eta

salmenta, haur parkea, tren txutxua...

12:30 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Emuaranbide kalekoek antolatuta.

Txarriduna hotelean.

aek

euskaltegiak 25 urte

“lotsa gainditzea da euskara ikasteko lehen pausoa”



Elgoibarko **aek** euskaltegia
Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aek.org

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Abuztuko irabazlea:

CARMEN FLORES

Irailerako saria:

ESTETIKA TRATAMENDUA

Antonio Arrillaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

[23 DOMEKIA]

10:00 "BAT EGIN" EGUNERAKO AUTOBUSA

Altsasura joateko autobusa Txankakua zubitik aterako da. Izen ematea ohiko lekuetan

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Jose Zubiaurre Leyaristi "Balle" Bandako zuzendari izan zenaren omenez Herriko Antzokian Zuzendaria: Jose Antonio Osoro Egitaraua: "El ultimo romantico" (Soutullo eta Vert); "Carmen" (G. Bizet); "Tango for a toreador" (Ch. Snijders); "James Bond 007" (J. de Mey); "Bella Italia" (H. Kolditz).

[28 BARIKAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2 eta 6 urte arteko haurrentzat Plaza Handian Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

18:30 KANPAI JOTZEA SAN MIGEL AUZOKO AUZOTARREI JAIEN HASIERA ADIERAZIZ "Gazteen Eguna"

19:00 POTEOA BIZIKLETAN

San Migelgo jaiak

21:30 GAZTE AFARIA

San Migelgo jaiak

24:00 DISKO FESTA

Goizaldera, "Striptease" San Migelgo jaiak

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Bajo Las Estrellas» (Z.K.)

21, barixakua: 22:15
22, zapatua: 19:30
23, domekia: 22:15

«La suerte de Emma» (Z.K.)

22, zapatua: 22:15
23, domekia: 19:30
24, astelehena: 21:30

«Harry Potter y la orden del Fenix»

23, domekia: 16:30

«El jefe de todo esto» (Z.K.)

25, martitzena: 22:15
27, eguena: 22:15

«Delirious» (Z.K.)

26, eguaztena: 22:15
28, barixakua: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«El club de los suicidas»

21, barixakua: 19:30-22:15
22, zapatua: 17:00-19:30-22:15
23, domekia: 17:00-19:30-22:15
24, astelehena: 19:30-22:15
25, martitzena: 19:30-22:15
26, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Bajo Las estrellas» (Z.K.)

Zuzendaria: Felix Viscarret.

Antzezleak: Alberto San Juan, Emma Suarez.

Benito lacunza jazz musikari izatea amesten duen kamarero alperra da. Halabeharrez, egun batzuetarako bere jaioterria, Lizarrara, itzuli behar du, eta orduan jakingo du bere anaiak, Lailok, neskalaguna topatu duela. Benitok oso ondo ezagutzen du neska. Nines bizitzak behin eta berri kolpatu duen ama ezkongabea da. Benito bere anaia tranpan eror ez dadin saiaturko da, baina, Nines-en alaba ezagutzearan, ikuspuntu ez aldatuko du.

«La suerte de Emma» (Z.K.)



Zuzendaria: Sven Taddicken.

Antzezleak: Jördis Triebel, Jürgen Vogel.

Automobil kontzesionario bateko erdipurdiko langilea da Max. Bat-batean pankreako minbizi hilgarri batek jota dagoela jakingo du. Ugazabari dirua lapurtu eta azken egunak Mexikoko paradisu batean pasako dituela erabaki du. Auto istripu batek bere asmoak zapuztu eta Emma izeneko neska batek gobematzen duen zerri haztegi batean amaituko du. Emakume bakarti eta lehorra da Emma eta diru beharrean dago. Maxen etorrerarekin zortea aldatuko zaio.

Atzera hegira



1945. urteko erretratu zahar hau **Miren Vallejok** laga digu. Argazkian ageri diren mutil guztiak elgoibartarrak dira. Txankakuako zubian aterata dago erretratua eta atzeko aldean Orbea jatetxe famatua ikusten da. Garai hartan gaur egun baino auto gutxiago ibiltzen zen ingurune honetan! Gogora ditzagun zein diren erretratuan azaltzen direnak:

Zutik, ezkerretik eskumara: **Imanol Furundarena (†)**, **Carlos Rebenga**, **Anjel Riaño (†)**, **Pako Riaño (†)**, **Cresencio Etxeberria (†)**, **Jazinto Mujika (†)**, **Lauko**, **Felix Kortaberria (†)**, **Imanol Garcia (†)**. Makurtuta, ezkerretik hasita: **Manolo Riaño (†)**, **Agustin Barrenetxea (†)**, **Rafael Mugerza (†)**, **German Uriguen "Etxegiña" (†)** eta makilarekin dagoena bere aita da.



ESKERTZA

2007ko abuztuaren 1ean, 91 urte zituela hil zen **Jesus Gabilondo Aguirre**ren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

2007ko irailaren 22an, 42 urte zituela hil zen **Idoia Leniz Azkarate**.

"Eguzkia ilunabarrean bezala isil-isilik izkutatu zinen arren, zure izaera goxoaren oroitzapenak bizi-bizirik dirau gure bihotzean."

Zure lagunak



TXANKAKUAREN VII. FERIA



TXANKAKUA

ELGOIBARKO MERKATARI ETA ZERBITZU ELKARTEA

Elgoibarren, 2007ko irailaren 22an
ELGOIBARKO FORUEN PLAZAN



2007ko irailak 22
Tokia: Foruen Plaza

11:00etatik 14:00etara

TXANKAKUAREN VII. FERIA. Elgoibarko TXANKAKUA Merkataria eta Zerbitzu Elkarteak produktua eta zerbitzuen erakusketa eta salmenta.

Haurrentzako parkea. Ludoteka, gaztelu eta txirrista.

TXU-TXU tren. Elgoibarko kaleetan zehar ibilaldia.

Oparia. Irailaren 20, 21 eta 22an, elkarteko edozein dendatan egindako erosketen tiketa gordetzen baduzu (eros-tiketa bezala zigilatuta egon behar da) opari bat jasoko duzu plazan tiketa aurkeztean. (Opariak bukatu arte).

TXANKAKUAren VISA TXARTELAren stand-a. Txankakua txartelaren gaineko informazioa eta txartela bertan eskatzeko aukera. Txartela eskatzen dutenek opari bat jasoko dute.

Edari eta pintxoaren txosna. Feriara datorren bazkideetako batek eskainiko duen piper dastaketa eta guzti.

13:00etan

600 euro saritan. Irailaren 17a eta 22a bitartean elkarteko edozein dendatan eta Foruen Plazako ferian erosketak egiten dituztenen artean zozketa bat egingo dugu. 6 sari zozketatuko dira; sariak erosketa baleak izango dira eta bakoitzaren balioa 100 eurokoa izango da. Zozketa eguerdiko 13:30etan izango da eta saria eskuratzeko, txartel saritua plazan gon beharko da momentu horretan.

Babesleak:



Industria, Merkataritza
eta Turismo Saila



Elgoibarko Udala

KUADRILLATEGI JAIA!

Madalako parkean
datorren ostiralean, irailak 28

18:00etan

Gazteentzako jolas parkea.

Kuadrillategin izena emateko orriak egongo dira.



Elgoibarko 12 eta 14 urteko gazte-koadrilentzat.

probatu
eta gozatu!

kuadriUategi

Programaren eragilea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Programaren laguntzaileak:



Elgoibarko
Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Euzko
Jaurlaritzaren
Kabineta Nagusia

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Kotxerako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR



Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR